



JRPC-ARLEP-37

ARLEP BARRUTIKO SALLEITAR HEZKUNTZA MISIORAKO IV. ASANBLADAREN DEIALDIA ETA BILTZARKIDEAK HAUTATZEKO PROZESUA “Elkarrekin zerumuga gara”



(Líria, 2024ko urtarrilaren 8tik 12ra)

Madril, 2023ko martxoak 6

Anaia, Asoziatu eta salletar Sekular maiteok:

Agur bero bat martxoaren hasiera honetan, hiruhilekoaren amaierarako bidean zeregin garrantzitsua duen hil honetan, Garizumaren amaierarekin.

Zirkular honen izenburuak adierazten duen bezala, Arlep Barrutiko Salletar Hezkuntza Misiorako IV. Asanblada abian jartzeko deialdi ofiziala bidaltzen dizuet.

IV. Asanbladarako deia egiten dugu desio batekin, alegia, une honetatik aurrera biziko dugunak La Salleko san Joan Bautistak eta lehen Anaiek utzi ziguten salletar oinordetza bultzatzen jarrai dezagun desioarekin. Asanblada honen helburu nagusia hezkuntza misioa berritzen lagunduko diguten bitartekotzarik onenak bilatzea da, haur eta gazteei, bereziki zaugarrienei, hobeto zerbitzatzeko.

Gaur martxan jartzen dugun IV. Asanblada hau beste bi asanbladekin oso lotuta egongo da: Alde batetik, Salletar Hezkuntza Misiorako **III. Nazioarteko Asanbladarekin**, 2022ko urriaren 28tik azaroaren 4ra Erromako Etxeburuan egin zena, eta goiburu hau zuena: *“Identitatea, bizitasuna, eraldaketa. Elkarrekin posible egiten dugu”*. Eta, beste aldetik, **RELEM Eskualdeko Eskualde Asanbladarekin**, zeina 2023-24 ikasturteko lehen hiruhilekoan egingo den probabilitate handiz, ikuspegi europarrago batetik partekatutako hezkuntza-proiektua ardatz hartuta.

Hiru asanbladak elkarren osagarri dira, eta erantzukizun-eremu berari begiratzen diote, Anaiek eta Sekularrek elkarrekin zerbitzatzeko misio berari. Orain, beraz, elkarrekin, Sarean, hezkuntza-misioak batuta, abian jartzen gara.

IV. AMELen Prestaketa-batzordeak aurkeztutako eta Barrutiko Salletar Hezkuntza Misioaren Kontseiluak 2023ko otsailaren 3an baietsitako proposamenari jarraituz, prozesuari hasiera ematen ari gatzazkio eta Barrutiko Salletar Hezkuntza Misioaren (SHM) IV. Asanblada abian jartzeko oinarrizko alderdiei buruzko informazioa ematen.



Data eta tokia: 2024ko urtarrilaren 8tik 12ra Llíria (Valentzia).

Goiburua eta sinboloa: “*Elkarrekin zerumuga gara*”. *Elkarrekin izatearen, sare izatearen eta begirada zerumugan jarrita salletar familia eta misioa eraikitzen jarraitzearen garrantzia islatzen du. Sinbolo nagusia Scrabble jokoak da, hitz berriak sortzeko aukera ematen duena, taldeak osatuz eta guztien parte-hartzea konbinatuz.*

Web honako hau: <https://amel.lasalle.es>

Sare sozialetan, *hashtag* #IV_AMEL erabiliko da.

Barrutiko IV. AMELen helburuak bi alderdi handitan banatzen dira:

- **Misio Proiektua baloratzea:**
 - Barrutiko III. AMELetik aurrera eremu bakoitzean egindako bidea ebaluatzeko.
 - Datozen urteetarako ekintza-ildo estrategikoak eguneratzeko, SHMren III. Nazioarteko Asanbladaren eta RELEMeko Asanbladaren zehaztapenak integratuz.
 - Barrutiko, Sektore bakoitzeko eta Hezkuntza-obra bakoitzeko aplikazio-eremuak definitzeko.
- **Datozen lau urteetarako ildo estrategikoak eta euren orientabidea zehaztea,** La Sallek mundu mailan dituen orientabideei jarraituz. Orientabide horiek *behartsuen aldeko hautapenaren, salletar presentzia ebanjelizatzailearen eta salletar identitatearen* inguruan dugun konpromisoa berritzeko deia egiten digute, baita lehen fasean definituko diren beste gai batzuk ere, Asanbladaren aurreko barruti-partaidetzaren ingurukoak.

Asanbladaren estiloak barrutiko salletar guztiak inplikatu nahi ditu. Horretarako, lau une planteatzen dira, ibilbide desberdinekin:

1. Asanblada egin aurretik, hainbat tresna ezberdinez talde desberdinen parte-hartzea sustatzea. Ekarpen hori gauzatzeko, martxoaren 27an beharrezko materialak bidaliko dira, eta erantzunak landu ahal izango dira 2023ko uztailaren 15era arte.
 - Hezkuntza-elkarteentzako dinamika bat bidaliko dugu
 - Barrutiko talde, elkarte eta kide anitzeko organo guztien erantzunak jasoko dira parte hartzeko inprimaki baten bidez.
 - Iradokizunak edo ohar libreak bidaliz.
2. Prestaketa-batzordeak aurreko fasean jasotako erantzun guztien sintesia egingo du.
3. Biltzarkideak hautatzea, eta sintesian sakontzeko alde aurreko bilera.
4. Asanblada Llíriako (Valentzia) La Salle Zentroan egingo da, 2024ko urtarrilaren 8tik 12ra.

Asanbladaren eraketa:

- Biltzarkideak gehienez 68 izango dira, gonbidatuak eta laguntzaileak kontuan hartu gabe.
- Hautaketa egiteko modua berdina izango da Anaientzat eta Sekularrentzat. Sareko Zuzendaritza bakoitzak, biltzarkidearen profila eta SHMren helburuak kontuan hartuta, bere Sektorerako hautaketa-proposamen zehatz bat diseinatuko du, dagokion SHMren Kontseiluak onartua izango dena.

Eskubidezko Biltzarkideak:

- Anai Ikuslariak
- SHMren Barruti Kontseiluko kideak

Biltzarkide hautatuak:

- 6 Anaia: sei sektoreetako SHMren Kontseilu bakoitzak Anaia bat hautatuko du, sektore bakoitzaren geografia hartzen duten elkarte-zonaldeetako.
- 24 Sekular: sei sektoreetako SHMren Kontseilu bakoitzak lau sekular hautatuko ditu, ahal dela bi gizon eta bi emakume.
- 9 Anaia nahiz Asoziatu Salletar Elkarten Kontseiluak hautatuak.
- Honako *koordinazio-talde* hauetako bakoitzak hautatutako biltzarkide bat, baina ez da ezinbesteko taldeko kidea izatea:
 - Ikasle ohien Koordinakundea.
 - Asoziatuen Koordinakundea.
 - Salletar Gazteen Barruti Taldea.
 - Sozio-hezkuntzazko Obren Koordinakundea
 - Salletar GGKEen Koordinakundea.
- Anai Ikuslariak beste 3 biltzarkide gehienez *izendatu* ahal izango ditu, Barrutiko zonalde eta errealitate guztien ordezkagarritasuna bermatzeko.

Aipatutako eremuetako bakoitzean ordezeko bat izendatuko da.

Maiatzaren 24a da biltzarkide hautatuak izendatuak izateko azken data.

Zalantzarik gabe, Asanblada batek eskaintzen digun abagunea lagungarri izango zaigu gure salletar sustraiak elikatzen jarraitzeko, gure historiaren zati honetan erabaki egokienak hartzeko eta biziberritu behar dugun Misio-proiektu bat eskuartean dugula konturatzeko, horrela, bere esangura eta egokitasuna eguneratzea ahalbidetu ahal izango dugu. Horregatik, pentsamendua, jarrerak, erabakiak eta ekintzak bateratuko dituen prozesu bat integratzen ahaleginduko gara, gure sustraiekin leial izanik etorkizunerantz aurrera egin dezagun.

Eskerrik asko zuen lankidetzagatik. Zuen esanetara gaude behar duzuen informazio gehigarria eskaintzeko.

Barrutiko Animazio Taldearen izenean

Anai Jose Roman Perez
Arlep Barrutiko Ikuslari Titularra